

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Etxebizitzen zaharberritzea % 57 hazi da 2018ko lehen hamar hilabeteetan

Lan hau aitortzeko, Eskubide Sozialetako Departamentuak "Biziberri Navarra Rehabilita" sariak deitu ditu eta dagoeneko zaharberritze babestuko zazpi jarduketa finalista ditu

Asteartea, 2018.eko azaroak 6

Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak, Eskubide Sozialetako Etxebizitza Zerbitzuko zuzendari Javier Etayok eta Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Iruñerriko Bulegoaren arduradun Federico Rosasek [etxebizitzen zaharberritze babestuak 2018an izandako bilakaera](#) azaldu dute, eta horrez gain, Nasuvinsa sozietate publikoarekin eta [Nafarroako Zaharberritze Bulegoekin](#) batera antolatutako ["Biziberri Navarra Rehabilita"](#) sariak aurkeztu dituzte. Foru Komunitatean egindako zaharberritzerik onenak saritu eta etxebizitzen hobekuntza ahalbidetzen duten sustatzaile, arkitekto eta teknikarien lana eta ahalegina aldarrikatzea da ekimen honen helburu nagusia.



"Biziberri Navarra Rehabilita" sariak iragartzeko kartela.

Hauexek dira sarietara aurkeztutako zaharberritze-lanak: "Iruñea Lezkairu", Soto de Lezkairu etxaldeko jabe-komunitateen 11 eraikinek osaturikoa; "Iruñea Karmen", Iruñeko Alde Zaharreko Karmen kaleko 12. zenbakiko jabeena; "Monteagudo", María Planillo Cardenal etxejabearena; "Gares", Juan Ayerra Larráyoz eta Ana Lucía Manero Ustárroz jabeena; "Muskitz", Imozko Udalarena; "Garde", Beatriz Anaut Fuertes jabearena; eta "Tafalla", Virginia Mujica Tapiz titulararena.

Proiektu hauek etxebizitza edo eraikin batean egindako zaharberritzearen aurreko eta ondoko egoerak bistaritzen dituzte, erreforma horrek hiri-ingurunean nahiz etxebizitzaren jabe edo erabiltzailearen gainean izandako eraginaz gain. Lan hauek, halaber, eraikuntzak mantentzen laguntzeagatik, egikaritzearen kalitateagatik,

ingurumenarekin arduratsua den arkitektura inplementatzeagatik eta lehengo eraikinak egungo beharretara egokitu eta kontserbatzeagatik nabarmendu dira.

“Biziberri Navarra Rehabilita” sariak, Nafarroako Gobernuak bultzaturiko “Berpiztu zure lehen etxebizitzarekin izan zenueneko ilusioa” kanpainari atxikita sortu dira, etxebizitzak nahiz eraikinak zaharberritzeko eskaintzen den laguntza tekniko eta ekonomikoa ezagutzera emateko xedez, izan ere, laguntza hori aurrekontu babesgarriaren % 60koa ere izan daiteke zenbait kasutan. Bi asteko iraupena izango duen publizitate-kanpaina honetan, iragarkiak sartuko dira irratian eta prentsa idatzian, eta bideo bat sare sozialetan, euskaraz eta gaztelaniaz. Kanpainaren guztizko kostua 27.997 eurokoa da.

Sariak emateko ekitaldia azaroaren 22an izanen da, ostegunez, 19:00etan hasita, Civican entzunaretoan (Pio XII.a Etorbideko 2an, Iruñea), eta bertan emango da ezagutzera irabazlearen izena.

4.653 etxebizitza zaharberrituta 2018an

Hamar hilabete hauetan, [4.653 etxebizitza zaharberritzeko lanak](#) hasi dira, hots, 2017ko epealdi berean baino % 30 gehiago eta Nafarroako etxebizitza-eskubideari buruzko 10/2010 Foru Legea aldatu eta zaharberritzeko laguntzen erreforma onartu zen 2016. urtean baino % 57 gehiago.

Izapidetutako espedienteek 54 milioi eurotik gorako inbertsioa suposatu dute 2018an, 2016an baino % 27 handiagoa. Zenbateko horrek eragin zuzena du enpleguaren sorkuntzan, izan ere, zaharberritzean inbertituriko milioi bakoitzeko 56 lanpostu sortu ohi direla kalkulaturik gero, 54 milioi euroko inbertsio horrek 3.000 lanpostu baino gehiago sorraraziko lituzke.

Zaharberritutako etxebizitzaren hazkundeak [emandako dirulaguntzen hazkundera](#) ere ekarri du. Horrela, tramitaturiko 1.180 espedienteen titularren artean, 18.839.426,80 euro banatuko dira, 2016an baino % 28 gehiago.

Aurtengo urtarrilaren 1etik aurrera, auzokideen komunitateei zaharberritze babestuko lanengatik emandako dirulaguntzak zergetatik salbuetsita daude, 30.000 eurotik beherako errentak dituzten subjektu pasiboak izatekotan. Neurriak ondorio positiboak ekarri ditu dagoeneko, eta horren harira, jabeen komunitateek aurtun [sustatutako espedienteetan % 30eko hazkundera](#) gertatu da.

Zaharberritze-lanetarako dirulaguntza-deialdia urte osoan irekita dago eta lehia-konkurrentziarik gabeko prozedura izanik (ez dago espedienteen artean banatu beharreko zenbateko finkorik), baldintza guztiak betez eskaturiko dirulaguntza guztiak ematen dira. Espainian parekorik ez duen prozedura honek asko arindu du espedienteen tramitazioa.

Gainera, laguntza horiekin batera, Energia, Turismo eta Agenda Digitalaren Ministerioaren menpeko Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuak (IDEA) jabeen komunitateen artean banatzen dituen Pareer II Programako laguntzak ere eskatzen ahal dira. Nafarroa da laguntza horiek bateragarriak dituzten estatuko bi autonomia-erkiegoetako bat.

Era berean, lurralde osoan barna, 9 zaharberritze-bulego daudela gogoratu behar da, eta horietan, goi arkitektoek zein teknikariek aholkularitza eta laguntza eskaintzen dizkietela zaharberritzeko espediente bat tramitatu nahi duten pertsonen.

Nafarroan dauden zaharberritze-bulegoen zerrenda udalerrika banatuta argitaratu da [Etxebizitzaren webgunean](#).

Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak sarien aurkezpenean nabarmendu duenez, “zaharberritzea funtsezko tresna bat da etxebizitza politiketan eta hiri kontsolidatuaren hiri-egitura



Ezkerretik eskuinera, Javier Etayo, Laparra lehendakariordea eta Federico Rosas.

berreskuratzeko politiketan, eta alokairu soziala sustatzeko politikekin batera, legealdi honetako lehentasun handienetakoa bilakatu da”. “Filosofia honi jarraiki sortu ditugu BIZIBERRI sariak, zaharberritzea bistaratzeko, urteko jarduketarik nabarmenenak aldarrikatze eta horien sustatzaileak aitortzeko”, gaineratu du.

Halaber, Laparrak “proiektu finalistetan islatzen den sustatzaile eta esku-hartzeen aniztasuna (gazte jendea eta adinekoak, hirietako etxebizitza-multzoak nahiz landa inguruneko etxeak, inguratzaile termikoan zein barnealdeko esparruen diseinu arkitektonikoa) eta jarduketa bakoitzari atxikitako pertsonen historia” azpimarratu ditu. “Etxebizitzen zaharberritzea bultzatuz, askotariko helburuak biltzen ditugu; hala nola, bizi-kalitatearen hobekuntza, energia-eraginkortasuna eta pobrezia energetikoaren murrizketa, ingurumenaren babesa, enpleguaren sorkuntza eta hazkunde ekonomikoaren bultzada”, ziurtatu du.